

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Sozietate printzipala, taldekideen artean egingo dugu, hauek gara: Oihenart Garaik, aplikazioa garatuko du, bere programazio ezagutzak erabiliz. Aitor Marcos, marketinaz arduratuko da, gehienbat sare sozialen kudeaketa. Jon Arregik, tratuak burutuko ditu beste enprekin, oso kontaktu onak baititu. Azkenik, Aitor Lorenzok, enpresaren kudeaketa burutuko du, bere enpresa kudeaketaren ezagutzak erabiliz.

Gainera, beste sozietate batzuekin tratuak egingo ditugu. Lehenik eta behin udaletxearekin hitz egin beharko dugu, azpiegiturak egiteko orduan baimen asko beharko ditugulako. Horretaz aparte, atzerriko inbertitzaile dirudun batekin sozietate bat sortuko dugu, bere kapitala baliatuz, proiektuak aurrera eramateko aukera izateko. Gainera, sektoreko beste enpresa batzuekin harremanak sortu beharko ditugu, errazagoa izango delako merkatuan sartzea koalizio bat bilatuz. Bestalde, Eraikuntza enpresa batekin, azpiegitura eraikitzeko beharrezkoa izango dugulako sektore honetako enpresa bat.

Azkenik, igogailuak egiten dituen enpresa batekin, azken batean, igogailu sistema bat erabiliko dugulako autoak aparkatzeko.

